



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

61. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Azaroa



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

- > **iSARE Microgrid Gipuzkoa eta EMUGI!** aurkeztu zituzten Madrilen egindako eskualde politikari eta Europako funtsei buruzko urteko ekitaldian

Azaroaren amaieran, Eskualdeko Politika eta Europako Funtzak Espainian 2011 izeneko urteroko ekitaldia egin zen Aranjuezen (Madril). Ekitaldi hartan, Europako Batzordeko Erkidegoko funtsen kudeaketako adituak eta arduradunak, Estatuko Administrazioa eta gobernu autonomikoak bildu ziren.

Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eta Europar Batasunak antolatutako jardunaldi horien bidez, Europar Batasunaren eskualdeko politiken emaitzen, birprogramazioaren eraginen eta etorkizunaren inguruan eztabaidatu zen, eta bereziki, 2014-2020 epeari begirako kohesio politika berriaren inguruan.

Ekitaldiko bigarren jardunaldian, 2011. urtean barrena gertatutako aurrerakuntzak aurkeztu ziren, eta horren haritik, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen baitan azken urtean Euskadin garatutako proiektu nagusietako batzuk azaldu zituen.

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak nabarmendutako proiektuen artean, Gipuzkoan garatutako bi azpimarratu zituen: **iSare MicroGrid Gipuzkoa** eta **emugi!**

Informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2011-12-07%20N%20Aranjuez.pdf>

- > **Europako eskualde eta hirien arteko ekonomia , gizarte eta lurralde kohesioa**

Europako ekonomia , gizarte eta lurralde kohesioaren bilakaerari buruzko zazpigarren txostena argitaratu da. Txosten horretan, Europako Batzordeak Europa 2020 Estrategiaren hiri eta eskualde dimentsioa nabarmendu du, eta Europako eskualdeak eta hiriak nola ari diren laguntzen Europa osoko hezkuntza adimentsu, jasangarria eta integratzailea lortzen.

Txostenak datu interesagarriak ematen ditu 2014-2020 aldiari buruz egiten ari diren eztabaidetarako. Era berean, Estatu kide bakoitzean proposatutako 2020 helburu nazionaletatik eskualdeak zer distantziatara dauden aztertzen du.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docoffic/official/reports/interim7/interim7_en.pdf



> Altuning Pro Gipuzkoa 2010-2011 sariak banatzea

Ignacio Altuna Fundazioak sustatua eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Azkoitiko Udalaren eta Kutzaren laguntzaz, **ALTUNING PRO GIPUZKOA** programa ikasturtean nazioarteko trukeko unibertsitate-programaren bat (Erasmus, etab.) egiten ari diren Gipuzkoako unibertsitate-ikasle guztiei bideratuta dago. Ikasle horiei ahotsa ematea du helburu, betiere atzerrian ikasi duten bitartean barneratutako ideia, informazio eta esperientzietan oinarritutako proiektua aurkeztuz, proiektu hori gure lurraldean ezarrita Gipuzkoaren garapena bultzatzea ahalbidetzeko.

Guztira, Gipuzkoako 76 ikaslek hartu dute parte edizio honetan, eta horietako lauren proiektuei 3na mila euroko saria eman diete.

Hona hemen saria lortutako ikasle eta proiektuak:

- **Maidier Urrutia. Proyecto EOTO** - Comunidades de aprendizaje social implantadas en Finlandia (EOTO proiektua – Finlandian ezarritako gizarte-ikaskuntzako komunitateak)
- **Hasier Larrea. Proyecto GipuzkoaTalent** - Ecosistema para el fomento del talento en el Territorio (GipuzkoaTalent proiektua – Talentua lurraldean sustatzeko ekosistema)
- **Nagore Goñi. Proyecto 'El poder de la imaginación'** - Reutilización de edificios abandonados y de objetos ya existentes en la sociedad ('Irudimenaren ahalmena' proiektua – Abandonatutako eraikinak eta gizartean badauden objektuak berriz erabiltzea).
- **Ainara Irastorza. Proyecto 'Inspiración Danesa'** – proyecto que engloba distintas iniciativas como la jubilación activa, la utilización de la bicicleta y la concentración del transporte público ('Danier inspirazioa' proiektua – Proiektu horrek hainbat ekimen biltzen ditu, hala nola erretiro aktiboa, bizikletaren erabilera eta garraio publikoaren kontzentrazioa.)

Informazio gehiago:

http://www.euki.org/altuning_gipuzkoa/programa_altuning.html



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> 2020 HORIZONTEA: 80.000 milioi euro Europar ikerketa, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzeko

Europako Batzardeak 2020 Horizontea aurkeztu du, 2014-2020 aldirako inbertsio-programa berria. Programa horretara 80.000 milioi euro bideratu dira, "Batasuna Berrikuntzaren alde" izeneko Europako estrategiaren aplikazioan aurrera egiteko, hazkuntza adimentsua, jasangarria eta integratzailea lortzearren.

2020 Horizonteak ikerketara eta berrikuntzara bideratutako Europako funts guztiak biltzen ditu programa bakarrean.

2020 Horizontea programaren helburu estrategikoak honako hauek dira:

- **Bikaintasun-zientzia.** 24.600 milioi euroko aurrekontuaz, Batzardeak munduko zientzia-arloan duen posizioa sendotu nahi du, eta, horretarako, mailarik goreneneko ikertzaileei diru-laguntzak gehituko dizkie, baliabide gehiago bideratuko ditu ikerketa- eta berrikuntza-eremu berriak zabaltzera, eta 50.000 ikertzaile berriren prestakuntzarako, mugikortasunerako eta kualifikaziorako laguntza emango du, besteak beste.
- **Europa, ikerketan eta berrikuntzan inbertitzeko toki erakargarri gisa** Aurrekontua: 17.900 milioi euro. Horretarako, inbertsio handiak egingo dira industriarentzat funtsezkoak diren teknologietan, hala nola IKTetan, nanoteknologietan, bioteknologian eta sektore aeroespazialean. Horrez gain, arrisku-finantziatorako aukera erraztuko du. Era berean, ETEen berrikuntzaren alde egingo du, hartarako propio diseinatutako laguntza-tresna berri bat sortuz.
- **Europako gizartearen erronketan aurrera egitea.** Aurrekontua: 31.700 milioi euro. Europako herritarrei eragiten dieten garrantzizko gaiak buruzko ikerketa sustatuko da. Bizimodu hobea lortzeko funtsezkoak diren sei arlotan jarriko da bereziki arreta: A) Osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea; b) Elikadura-segurtasuna, nekazaritza jasangarria, itsasoaren eta nabigazioaren arloko ikerketa, eta oinarri biologikoko ekonomia; c) Energia segurua, garbia eta eraginkorra; d) Garraio adimentsua, jasangarria eta integratua; e) Klimaren aldeko ekintza eta baliabideen eta lehengaien eraginkortasuna; eta d) Gizarte inklusibo, berritzaile eta seguruak.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/research/horizon2020/index_en.cfm?pg=home



> Batzordearen lan-programa 2012rako

Europako Batzordeko presidentek, azaroaren erdialdean, Batzordearen 2012. urterako lan-programa aurkeztu zuen Europako Parlamentuan. Programak **“Europako berrikuntza gauzatzea”** izena du.

Programa horren bidez, ekonomiaren eta finantzen arloan egiten ari diren aldaketak bultzatzeko ekintza koordinatu nahi du Batzordeak. Hain zuzen ere, programak Europako politika-joera nagusietan oinarritutako neurri jakin batzuk proposatzen ditu.

Lan Programaren helburu orokorrak hauek dira:

- Egonkortasuna eta erantzukizuna ardatz dituen Europa eraikitzea
- Hazkuntzan eta elkartasunean oinarritutako Batasuna eraikitzea
- Batasunari ahots aktiboa ematea munduan

2012. urterako proposatutako lan-programak Batzordearen jardueraren hainbat urtetako ikuspegia jasotzen du, eta Europako proiektuaren garapenean inplikaturako gainerako erakundeak gidatzeko helburua du, EBko gainerako erakundeak elkarrekin egiten dituzten lanak Batzordearekin batera programatzera ere bultzatuz.

Informazio gehiago:

Europako berrikuntza gauzatzea. Batzordearen lan-programa 2012rako

http://ec.europa.eu/atwork/programmes/docs/cwp2012_es.pdf

Batzordearen 2012rako lan-programaren eranskina

http://ec.europa.eu/atwork/programmes/docs/cwp2012_annex_es.pdf

2012rako orientabideak

http://ec.europa.eu/governance/impact/planned_ia/roadmaps_2012_en.htm



> 2014-2020 programa berria Europako ETEen lehiakortasuna hobetzeko

Europako Batzordeak Europako enpresen lehiakortasuna hobetzeko finantza-laguntzako programa berri bat aurkeztu du. Programa horrek arreta berezia jarriko du ETEetan 2014-2020 aldian.

Programa horren izen ofiziala COSME da (Competitiveness of SMEs izenaren siglak), eta ETEek finantziarioa eskuratzeko aukera hobetzeko helburua du, finantza-tresna berriak eskuratzeko aukera erraztuz; enpresen nazioartekotzea sustatuz Batasunaren barnean eta mundu-mailan merkatuetan sartzeko aukera erraztuta; eta Europako gazte eta emakumeen artean kultura ekintzailea sustatuz.

ETEez gain, programak beste batzuei ere ematen die laguntza, hala nola norberaren kontura hasi eta negozio propioa abian jartzeko edo garatzeko zailtasunak dituzten herritarrei (ekintzaile berriak, gazteak, emakumeak, etab.); eta estatu kideetako agintariei, esparru horretako politiken erreforma prestatzen eta aplikatzeko lanetan, hain zuzen ere.

Programak eutsi egin die Berrikuntza eta Lehiakortasunerako egungo Programan (BLP) barne hartutako jarduerari, eta 2.500 milioi euroko aurrekontua du 2014-2020 aldirako.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/cip/cosme/index_en.htm



> Europako politika ekonomikoaren koordinazioa indartzeko lege sorta, indarrean

Azaroaren 23an, Europako politika ekonomikoaren koordinazioa indartzeko beste lege sorta bat argitaratu zen Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean.

Abenduaren 13an indarrean jarri den lege-esparru berri horrekin, Europako Parlamentuak Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna indartu nahi du, Europar Batasunaren eta, bereziki, eurogunearen gobernantza hobetuz. Era berean, Erkidegoko politikaren mekanismo makroekonomikoak hobetzeko helburua du, etorkizunean krisi ekonomikorik izan ez dadin.

Argitaratutako lege sortak, astebete lehenago Europako Parlamentuko presidentek eta Finantza ministroordeak onartutakoak, bost erregelamendu eta zuzentarau bat ditu:

- 1173/2011 Erregelamendua, eurogunean aurrekontu-zaintza eraginkor aplikatzeari buruzkoa;
- 1174/2011 Erregelamendua, euroguneke gehiegizko desoreka makroekonomikoei aurre egiteko neurriak aplikatzea ezartzen duena;
- Aurrekontu-egoeren gainbegiratzea sendotzeari eta politika ekonomikoak gainbegiratzeari eta koordinatzeari buruzko erregelamendua;
- 1176/2011 Erregelamendua, desoreka makroekonomikoak prebenitzeari eta zuzentzeari buruzkoa;
- 1177/2011 Erregelamendua, gehiegizko defizitaren prozeduraren aplikazioa azkartzeari eta argitzeari buruzkoa;
- 2011/85/EE Zuzentaraua, estatu kideen aurrekontu-esparruen betekizunei buruzkoa.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/JOHtml.do?uri=OJ%3AL%3A2011%3A306%3ASOM%3AES%3AHTML>



> 2012, Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europar Urtea

Europako Batzordeak “**Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europar Urtea**” izendatu du 2012. urtea. Europan zahartze aktiboaren kultura sortzeko prozesua erraztea da ospakizun horren helburu nagusia, betiere adin guztietarako gizartean oinarrituta.

Esparru horretan, 2012 osoan, Batzordeak sustatu eta bultzatu egingo du estatu kideek, eskualdeko eta tokiko agintariak eta Europako enpresa eta herritarrek zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko elkartasuna eta lankidetzaz sustatzeko egiten duten ahalegina, betiere aniztasuna eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna kontuan izanik.

Batzordeak honako helburu zehatz hauek ditu Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Europar Urtea ospatzearen inguruan:

- zahartze aktiboaren balioaren eta horren dimentsio guztien inguruan sentsibilizatzea, maila guztietako agenda politikan posizio nagusia ematen zaiola bermatuz, adinduenek gizarteari eta ekonomiari egiten dieten ekarpen baliotsua nabarmentzeko.
- estatu kideen eta gainerako eragileen artean eztabaida eta jakintza- eta informazio-trukea sustatzea, zahartze aktiboko politikak bultzatzeko, jardunbide egokiak identifikatu eta hedatzeko eta lankidetzaz bultzatzeko.
- marka orokor bat sortzea zahartze aktiboaren inguruan konpromisoak hartzeko eta irtenbide, politika eta epe luzerako estrategia berritzaileak garatzeko aukera emango duten ekintza zehatzak egitea, enpleguari eta lanari lotutako adin-kudeaketako estrategia orokorrak barne
- adinagatiko diskriminazioaren kontra borrokatzeko jarduerak sustatzea, adinarekin zerikusia duten estereotipoak gaindituz, eta oztopoak ezabatzea, batez ere adinduenen enplegagarritasunari dagokionez

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/social/ey2012.jsp?langId=es>



> Erasmus denentzat

“Erasmus denentzat” ekimenak hezkuntza-mugigarritasuneko programa guztiak biltzen ditu, programa horien eraginkortasuna gehitzeko, diru-laguntzak ematea errazteko eta zatiketa saihesteko.

Programak, guztira 19.000 milioi euroko aurrekontua duenak eta 2014an hasiko denak, bere prestakuntzaren zati bat EBko nahiz EBtik kanpoko beste herrialde batean egiteko aukera emango dio jende askori, hala nola goi-mailako hezkuntzako ikasleei, lanbide-heziketako ikasleei, irakasleei, prestatzaile eta gazte-monitoreei, praktikak enpresetan egin nahi dituzten gazteei, masterra egiten ari diren ikasleei, truke-ikasleei, hezkuntza-erakundeei, eta enpresei, etab.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/education/erasmus-for-all/doc/com_en.pdf



KOHESIO-POLITIKA

> Kohesio-politikan egindako akatsak

Europar Batzordeak 2006-2009 aldian kohesio-politikan egin diren akatsei buruzko azterlana argitaratu du. Lan horretan, akats horiek berriz ez egiteko egin dituen ekintzak eta etorkizunerako orientazioak ere bildu ditu.

Batzordearen azterlanak akatsen adibiderik ohikoenak eman ditu aditzera, hala nola lizitazio-prozedura egokia egin gabe kontratuak eman izana, gastua behar bezala justifikatu ez izana (auditoretzarik gabe), gastu orokorrak zehazki kalkulatu ez izana,aldi bereko finantziazioan ez dagokion interes-tasa aplikatu izana eta ordainketa-eskaerak goregi kalkulatu izana.

«Akatsa» terminoa EBren finantziazioa jasotzeko behar diren baldintzak ez betetzea adierazteko erabiltzen da. Aldiz, «iruzurra» terminoa bidegabeko onura lortzearen nahita edo delitua eginez engainatzea adierazteko erabiltzen da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/presenta/errors2011/analysis_errors2011_en.pdf

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/presenta/errors2011/sec_errors2011_en.pdf

> "Hablamos de Europa" (Europa hizpide) Gipuzkoako Ganberan

Azaroaren 3an, "Hablamos de Europa" jardunaldia egin zen Gipuzkoako Ganberan. Bertan, honako hitzaldi hauek izan ziren:

- Pedro Esnaola: "Gipuzkoa tan pequeña-tan grande" (Gipuzkoa, hain handia, hain txikia)
- Jesús Garmendia: "Nos ha beneficiado el euro en la crisis?" (Mesede egin al digu euroak krisian?)
- Fernando Fernández: "Política económica común adoptada durante la crisis y retos futuros de la UEM" (Krisian egindako politika ekonomiko komuna eta EDBren etorkizunerako erronkak)
- Ignacio Martín: "Experiencia práctica: internacionalización en Europa" (Esperientzia praktikoa: nazioartekotzea Europan)

Informazio gehiago:

<http://www.camaragipuzkoa.com/secciones/actualidad/noticias-detalle.php?idnoticia=326&pag=0>



e-LIBURUTEGIA

> EBren industria-egitura – Joerak eta emaitzak

Europako Batzordeko Enpresa eta Industria Zuzendaritzaren argitalpen horren helburua Europako ekonomiaren lehiakortasuna sektore-ikuspegitik aztertzea da. Europako sektore-lehiakortasunaren adierazleen segimenduko eta monitorizazioko Batzordeak hartutako konpromisoaren esparruan argitaratu da.

Txostenak Europako industria-egiturari buruzko informazio zehatza ematen du (1. eta 2. kapituluak), baita azpisektore bakoitzak azken urtean izandako errendimendu erlatiboari buruzkoa ere. Horrez gain, enpresak tamainaren arabera banakatuta azaltzen ditu, balio erantsiari dagokionez, baita hainbat kasu-azterlan ere.

Sektoreari buruzko egitura- eta egoera-informazio horrekin batera, antzemandako joera nagusiak identifikatzen ditu, baita azken urteotan lortutako emaitzak ere. 3. kapituluaren helburua EBko industriaren lehiakortasuna eta hazkuntza hainbat ikuspegitik (produktibitatea, inbertsioa, teknologia, etab.) aztertzea da. Azkenik, 4. kapitulua EBko industriaren kanpo-lehiakortasunari buruzkoa da.

Txostenaren eranskinean, erabilitako nomenklatura estatistikoa azaltzen da, baita txostenean erabilitako kategorien izen laburtuak ere.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/enterprise/newsroom/cf/_getdocument.cfm?doc_id=7066



> Eurobarometroko inkesta soziala: Enplegua eta politika soziala

Eurobarometroaren zenbaki berri bat, krisi ekonomikoak Europako herritarren enpleguan eta enpleguko etorkizuneko aukeretan duen benetako eragina aztertzen eta neurtzen duena.

Azterlanak herritarren pertzepzioa aztertzen du, krisi ekonomikoak lan-merkatuan, beren lanpostuan eta etorkizuneko aukeretan duen eraginaren inguruan, betiere beren nahiz senitartekoen lan-posizioari dagokionez. Pertsonen egungo egoerari buruzko datuak ere lortu ditu (lan-egoera, kontratu motak...)

Herritarrek lanpostua galduz gero zer jarrera izango luketen eta kaleratuko balituzte zer egingo luketen ere galdetu da inkestan. Prestakuntzari lotutako alderdiak ere aztertzen dira, hala nola lana bilatzeko erabilgarria den, praktiketarako, etab. Eta etorkizunean beharrezkoak izango diren trebetasunak hedatzearen eta haien inguruan sentsibilizatzearen garrantzia ere ebaluatzen da.

Azkenik, inkestatuen arabera EBk egungo krisi ekonomikoan hainbat arlotan —hala nola enplegu-sorkuntzan eta politika sozialeko neurrien garapenean— duen eragin orokorra hartu da aintzat.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_377_en.pdf

> Kirolari buruzko Europako akordioa: boluntariora eta DMAren aurrean koordinatzea

Azaroaren amaieran, Europar Batasuneko Batzordeak Europako kirolari buruzko hiru dokumentu berri onartu zituen. Hain zuzen ere, kirol-ekitaldiak faltsutzearen kontrako borrokari, kirol-eremuko boluntariora eta EBk Dopinaren aurkako Munduko Agentziaren (DMA) aurrean duen ordezkari eta koordinazioari buruzko dokumentuak dira.

Informazio gehiago:

<http://pl2011.eu/fr/content/accord-dans-le-domaine-du-sport>



ADIERAZLEAK

> 2011-13 aldirako aurreikuspenak: susperraldia eten egin da

EBko BPGa 2012a nahiko aurreratuta egon arte bere horretan geldituko dela aurreikusi du Europako Batzordeak. Aurreikuspen horren arabera, urte osoan % 0,5 igoko da. 2013an, hazkuntza pixkana-pixkana suspertzea espero da, % 1,5eraino-edo suspertzea, hain zuzen ere.

Konfiantza izugarri gutxitzeak inbertsioa eta kontsumoa kaltetzen ari da. Halaber, hazkuntza globala ahultzeak esportazioak geldiarazten ditu, eta aurrekontua premiaz onbideratu beharrak barne-eskaera kaltetzen du.

Eta ekonomiaren susperraldia eten egin dela dio. Hain zuzen ere, 2011ko azken hiruhilekorako eta hurrengo hiruhilekoetarako BPGa bere horretan gelditzea aurreikusi du, etorkizuneko aukerak udan hasitako urritzeko goranzko joeraren testuinguruan.

Batzordeak adierazi du hazkunde-aukerek atzera egin duten eta ziurgabetasuna gero eta handiagoa den jokalekuan oso litekeena dela enpresek beren inbertsioak atzeratzea edo bertan behera uztea. Eta etxeetan zuhurtasunez kontsumituko dutela, eta zenbait estatu kidetan, zorpetze-maila handia gehiago murrizten saiatu beharko dutela.

Europa gurpil zoro batean sartuta dago, eta honako ezaugarri hauek ditu: benetako ekonomia ahuldu egin da; finantza publikoak hauskorrak dira; eta finantza-sektorea ere oso ahula da, eta porrot egin behar du onbideratzeko.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/economy_finance/eu/forecasts/2011_autumn_forecast_en.htm

> Gipuzkoa/lparraldea: mugaz haraindiko lurraldeak zifretan

Baionako Ganberak eta Gipuzkoakoak Bihartean mugaz haraindiko ganberaren esparruan egindako argitalpenak lurralde bakoitzaren adierazle sozioekonomiko nagusiak biltzen ditu.

Adierazleek honako eremu hauek hartzen dituzte eraginpean: biztanleria, enpresak, enplegua, industria, merkataritza, turismoa, zerbitzuak, arrantza, eraikuntza, proiektu handiak, azpiegiturak eta irakaskuntza.

Informazio gehiago:

<http://www.camaragipuzkoa.com/secciones/actualidad/noticias-detalle.php?idnoticia=335&pag=0>



> Energia, garraioa eta ingurumena

Eurostaten laburpen-dokumentuak energiaren, garraioaren eta ingurumenaren arloan garrantzizkoak diren alderdien sorta zabala biltzen du, garapen jasangarrian arreta berezia jarrita.

Datuak EB-27 osoari —estatu kideei— buruzkoak dira, baita hautagai diren herrialdeei eta EFTAko herrialdeei buruzkoak ere.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-DK-11-001/EN/KS-DK-11-001-EN.PDF

> Nekazaritza eta Arrantza

2011ko edizioak, Eurostatek eginak, nekazaritzako eta arrantzako estatistikak biltzen ditu. Hain zuzen ere, Europar Batasuneko nekazaritza-produkzioaren inbentarioa egiten ditu, batez ere laboreen, esnearen, haragiaren eta arrainaren produkzioarena.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-FK-11-001/EN/KS-FK-11-001-EN.PDF